



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Euskararen
erakunde
publikoa

Office public de
la langue basque

EUSKO JAURLARITZAREN
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAREN
ETA EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN ARTEAN
HIZKUNTZA POLITIKAKO GAJETAN
LANKIDETZAN JARDUTEKO HITZARMENA

-

2018ko ERANSKINA

Bildurik

Batetik,

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua, **Bingen ZUPIRIA GOROSTIDI** Jauna,

Eta bestetik,

Euskararen Erakunde Publikoaren lehendakaria, **Beñat ARRABIT** Jauna, 2018ko apirilaren 24ko Biltzar nagusiak emandako ahalmenak erabiliz,

Honako hau,

Adierazten dute

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak, 2017ko martxoaren 21eko bileran, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskarari buruzko hizkuntza-politikako gaitan mugaz gaindiko lankidetzan garatzeko hitzarmen-markoa izenpetzea onartu zuen.

2018



Era berean, Euskararen Erakunde Publikoaren Biltzar Nagusiak, 2017ko martxoaren 22ko bileran, hitzarmen-marko hori izenpetzea onartu zuen.

Horrela, 2017ko martxoaren 29an, Baionan erakunde bien arteko lankidetzahitzarmena sinatu zen.

2011-2016 hitzarmenaren jarraian, 2017-2022 epealdirako indarraldia duen hitzarmen horren xedea da Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskarari buruzko hizkuntza-politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzagaratzearen aldeko borondatea berrestea eta erakunde mailako harreman iraunkorrak egonkortzea eta garatzen jarraitzea, herri-erakunde bakoitzaren erabaki-autonomia eta funtzionamendu-arauak errespetatuta.

Elkarlana zehazteko prozedurari dagokionez, hitzarmenaren laugarren atalean adierazten da urtero eranskin baten bitartez elkarlanean garatuko diren egitasmoak zehaztuko direla. Horrekin batera, eta euskararen erabilera areagotzeko xedez, Ipar Euskal Herriko hainbat eragile pribaturen lana finantzatzeko moduari buruzko zehaztasunak ere, urteko eranskinean jasoko direla zehazten da.

Hori horrela, eranskin honek 2018ko egitekoak zehazten ditu, bai eta Ipar Euskal Herriko eragile pribatuentzako diru-laguntzen zehaztasunak.

Bestalde, euskararen aldeko hizkuntza politikaren sustatzeko Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernua eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean mugaz gaindiko lankidetzarako marko berri bat adostu da, 2017ko uztailaren 3an Iruñean sinatutako hitzarmenaren bitartez formalizatu dena. Hitzarmenak hiru partaideen artean bideratu ekintzak biltzen ditu, EEP eta Eusko Jaurlaritzaren arteko eranskin honetan agertzen direnak ere.

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Xedapenak

1. Hitzarmen eranskinaren helburua

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren artean euskararen gaineko hizkuntza-politikako gaietan mugaz gaindiko lankidetzagaratzeko onartutako hitzarmen-markoari jarraikiz, hitzarmen-eranskin honen helburua da 2018an bi erakundeek elkarlanean garatuko dituzten egitasmoak zehaztea eta Ipar Euskal Herrian euskararen transmisioa eta erabilpena areagotzeko sustapen-lerroak ere finkatzea.

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

2. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2018an elkarlanean garatuko dituzten ekimenak

2.1. Helduen euskalduntze-alfabetatzearen esparruan

2.1.1. Hizkuntza-gaitasunaren mugaz bi aldeetako egiaztagirien baliokidetzaren definizioa eta antolaketa

2009an, Paue eta Aturri aldeko herrialdeetako Unibertsitateak, Bordeaux Montaigne Unibertsitateak eta Euskararen Erakunde Publikoak Europako Erreferentzia Marko Bateratuan oinarritzen den euskara-gaitasuna egiaztatzeko dispositibo bat sortu ondoren, 2008. urtea arte Euskaltzaindiak antolatzen zuen Euskara Gaitasun Agiria (EGA) azterketaren segida hartu du Euskararen Erakunde Publikoak, Euskaltzaindiaren babesarekin, C1 mailako azterketa antolatuz 2008az geroz.

2009 eta 2010ean, EEPko zerbitzuek Eusko Jaurlaritzako zerbitzuekin lankidetzan jardun zuten, mugaz bi aldeetako C1 mailako agirien baliokidetzak gauzatzeko.

Gisa horretan, agiriaren baliokidetzak Eusko Jaurlaritzaren 2010eko azaroaren 9ko Baliokidetzak Dekretu bidez aitortu zen eta 2010eko maiatzaren 4ko Agindu foralaren bidez Nafarroako Foru Erkidegoan.

Abiatu lankidetzari jarraikiz, EEPren 2015eko martxoaren 19ko Biltzar Nagusiak erabaki ondoan, HABEko zerbitzuekin elkarlanean, B1 mailako azterketa plantan eman zen. Geroztik, horren ardura duen Batzorde zientifikoak, urtero deialdi bakarrean antolatzen ditu B1 mailako probak, euskalduntze-bidean diren helduei zuzendurik.

2010ean C1 mailako EGA agiriarekin egin zen gisan, 2018an EEPko zerbitzuek Eusko Jaurlaritzako zerbitzuekin lankidetzan ariko dira, B1 mailako agiriaren baliokidetzak gauzatzeko.

2.1.2. Helduen euskalduntzearen garatzeko laguntza-dispositiboak buruzko diagnostikoa

2018rako, Helduen euskalduntzearen eremuan kokatutako Euskararen Erakunde Publikoaren esku-hartze estrategia zehazte-bidean partaideek adostua:

- dauden laguntza-dispositiboaren diagnostikoa egitea, EAEn egiten ari diren ikerketak baliatuz,
- ikasleen ikasketa prozesuaren jarraipena egiteko tresnak lantzea.

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

2.2. Euskararen Adierazle Sistema eraikitzeke elkarlana

2013an, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS), Euskararen Erakunde Publikoak (EEP), Nafarroako Gobernuko Euskarabideak eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiek, Euskararen Adierazle Sistema (EAS aurrerantzean) egitasmo partekatua egituratzeari ekin zioten.

2014an, partaideek Lantalde Teknikoa eratu zuten sistemaren definitzeko eta egituratzeko lanen hasteko.

2015an, Euskararen Adierazle Sistemaren ezaugarriak findu ziren eta aplikazio informatikoaren lehen bertsioa sortu. Bestalde, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta Euskararen Erakunde Publikoak, beste partaideekin, POCTEFA Europar programaren kariatara, diru-laguntza eskaeraren dosierra osatu eta aurkeztu zuten, bai eta dagokion mugaz gaindiko lankidetzak hitzarmena formalizatu ere.

Hortik aurrera, 2016ko maiatzaren 25ean POCTEFAk proiektua onartu ondoren, adierazle sistemaren ezaugarriak zehazki definitu dira, datuak bildu, prozesatu eta 2017 amaieran publiko egin, behin betiko web gunean zabalduz.

2018rako partaideek adostu dute elkarrekin sortutako adierazle sistemaren garapena elkarrekin jarraitzea, eta proiektuaren garapenarekin sistemaren eta adierazleen egokitzapen lanetan aritzea, lurralde bakoitzaren errealitateak hobeki kontuan hartuz. Bestalde, EAS webgunea elikatzeke lanek ere jarraituko dute.

2.3. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren zerbitzuen artean informazioa trukatzeko

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren zerbitzuek partaidetza tekniko batzuk osatu dituzte, gai jakin batzuen inguruan informazioa trukatzeko.

2.3.1. Hizkuntza baieztapena eta terminologiari dagokienez

Ipar Euskal Herrian euskaraz ekoizten duten profesionalei (EEPko lan-taldea, euskara teknikari-garatzailleak, hedabideetako profesionalak, irakasleak...), EEPren kide diren erakundeei (Departamendua, Eskualdea, Euskal Elkargoa) eta bitzita sozialaren alorreko EEPren partaideei hizkuntza baieztapen zerbitzua eta hizkuntza-baliabideak eskaintzen dizkie EEPk.



EEPk eskaini zerbitzua optimizatzeko helburuarekin, 2018an Eusko Jaurlaritzako zerbitzuekiko lankidetza jarraituko da:

- itzulpenen kudeaketarako tresnak aztertuz,
- terminologia adituekin lankidetza egituratzeko eta egonkortzeko Iparraldeko termino bereziak finkatzea helburu izanez,
- terminologia lanetarako Iparraldeari berezituak zaizkion terminoak Euskalermen sartzeko,
- Euskararen Aholku Batzordearen Terminologia Batzorde Iraunkorreko Batzorde teknikoetan iparraldeko adituak integratuz, EEPk adituak proposatuz gaiaren arabera (ikus 3ko hitzarmena).

2.3.2. HABE Liburutegiari dagokionez

HABE Liburutegiak, Euskararen Erakunde Publikoan diharduten teknikarien dokumentu-hornitzaile izaten jarraituko du. Zentzu horretan eta dagokion bidetik eskatuta, HABE Liburutegiaren espezializazio-eremuetako hainbat dokumentu eta datu eskuragai jarriko dira:

- Euskaraz edo euskarari buruzko edozein alorretakoak direla,
- Bigarren hizkuntzen didaktika, soziolinguistika, psikolinguistika edo hezkuntza elebiduneko alorretakoak direla.

2.4. VI. inkesta soziolinguistikoaren obratzea

Inkesta soziolinguistikoaren helburu nagusia da Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa aztertzea eta horretarako hizkuntza-gaitasuna, transmisioa, euskararen erabilera eta horiek sustatzearen aldeko jarrerak nolakoak diren eta horien bilakaera nolakoa izaten ari den ezagutzea.

Bost urtetarik, 1991z geroztik, Eusko Jaurlaritzak inkesta soziolinguistikoa antolatzen du euskara baliatua den hiru lurraldetan: Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian. Euskararen Erakunde Publikoa sortu den unetik, Eusko Jaurlaritzak eta EEPk inkesta soziolinguistikoak elkarrekin antolatzea erabaki dute.

2006 eta 2011ko inkesta soziolinguistikoak lankidetzan burutu zituzten Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako eta Euskararen Erakunde Publikoko zerbitzuek hainbat urratsetan: lagingaren definitzea eta osaketa, Ipar Euskal Herriko landa-lanen antolaketa eta eramatea, datuen irakurketa, itzulpen lanak, argitalpenaren zabalkundea.

Honela, 2016ko inkesta soziolinguistikoa partaidetza eskema berdinen arabera antolatua izan da.



2016an eta 2017an eman diren urratsak honakoak izan dira:

Galdetegiaren prestaketa, laginaren definitzea eta osaketa, landa-lanen antolaketa eta eramatea, datuen esplotazioa, emaitzen azterketa, laburpen-txostenen idazketa eta lehen emaitzen aurkezpena.

2018an, behin betiko txostenak idatziko dira eta hedapenerako euskarri osatuak lau hizkuntzetan argitaratuko dira : euskaraz, frantsesez, gazteleraz eta ingelesez.

3. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren sustapen-lerroak, Ipar Euskal Herriko eragile pribatuen lana diruz laguntzeko

Euskararen transmisioa eta erabilera areagotzeko xedez, Ipar Euskal Herriko hainbat eragile pribaturen lana finantzatzeko moduaren gaineko zehaztasunak jasotzen dira eranskin honetan.

2018an proiektuak finantzatzeko, alde bien arteko ekarpenez hornitu lankidetzarako fondo bat berriz ere baliatuko da. Honen xedea, beraz, Ipar Euskal Herrian euskararen erabilera sustatzeko ekimenak garatzen dituzten erakunde pribatuentzat diru-laguntzak emateko modua arautzea da.

Diruztatuak izanen diren ekimenak 2018an hasi edota gauzatu beharko dira eta indarrean dagoen legediaren arabera eraturiko eta dagokion erroldan inskribaturiko Ipar Euskal Herriko pertsona juridiko pribatuek eskatu eta eskura ditzakete agindu honetako diru-laguntzak.

Horretarako, lankidetzarako fondoa eratu da, alde bien ekarpenez. Guztira, **1.930.000 €**ko gehieneko zenbatekoa jarri da era honetan:

- Euskararen Erakunde Publikoak: **1.530.000 €**
- Eusko Jaurlaritzak: **400.000 €**

Bi partaideek hornitu lankidetzara fondo hori, **2 dirutza multzotan** bideratuko da:

- **Lehen dirutza multzoa:** bi partaideen arteko sustapen-lerroekin bete betean datozela ikusita, Ipar Euskal Herriko elkarte-eragile jakin batzuk hitzarmen baten berme diruztatuko dira. Orohar, eragile hauen sustatzeko, **1.550.000 €**ko gehieneko zenbatekoa jarriko da, era honetan:

- Euskararen Erakunde Publikoak: **1.228.762,50 €** (%79,275)
- Eusko Jaurlaritzak: **321.237,50 €** (%20,725)

- **Bigarren dirutza multzoa:** Ipar Euskal Herriko beste hainbat eragile pribatuei zuzenduko den hizkuntza jarduera Proiektu Deialdia irekiko da. Orohar,



beste eragile pribatuen diruztatzeko, **380.000 €**ko gehieneko zenbatekoa jarriko da, era honetan:

- Euskararen Erakunde Publikoak: **301.245 €** (%79,275)
- Eusko Jaurlaritzak: **78.755 €** (%20,725)

Hitzarmenean adostu bezala, Jarraipenerako Batzordeak, hitzarmen-markoan zehaztutakoak eta lankidetza-fondoa koordinatuko ditu, eta lehentasunak, helburuak, aurrekontuak eta erabiltzeko arauak proposatuko ditu. Halaber, Batzordeak egitasmoen azterketa teknikoa egingo du, betiere eranskinen ezarritako irizpideekin eta helburuekin bat etorritik.

Lankidetzarako fondoaren kudeaketa, eragile identifikatuen jarraipenari eta hizkuntza-jardura Proiektu Deialdiaren kudeaketari dagokienez, nagusiki, Euskararen Erakunde Publikoaren esku izango da. Horrela, Euskararen Erakunde Publikoak lehiaketa publikorako deia egingo du. Prozesu horretan Eusko Jaurlaritzaren laguntza eta presentzia arlo guztietan bermatuko da: egitasmoen balorazioa egiterakoan, erabakietan, laguntzen diren egitasmoen zabalkundean...

Euskararen Erakunde Publikoak eta Eusko Jaurlaritzak elkarrekin aurkeztuko dituzte, interesatuen eta hedabideen aurrean, lankidetzarako fondoaren kariatara sustatu ekimenak.

Bestalde, fondo horretako diru guztia banatzen ez bada edo esleitutako laguntzen likidazioa dela-eta diru-itzulketarik izanez gero, Euskararen Erakunde Publikoak, kudeatzaile nagusi den neurrian, horren berri emango dio Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eta proportzionalki dagokion diru-kopurua itzuli beharko dio.

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

4. Hitzarmenaren kudeaketa

Eusko Jaurlaritzaren aldetik, hitzarmen hau Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatuko du. Bestalde, Frantziako instituzioei dagokienez, Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoak kudeatuko du.

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

5. Ordaintzeko era eta diru-laguntzaren justifikazioa

Eusko Jaurlaritzak, beraz, **400.000 €**ko ekarpena egingo dio Euskararen Erakunde Publikoari, era honetan:

- **1. ordainketan %50** (200.000 €): eranskina sinatutakoan,
- **2. ordainketan %50** (200.000 €): diru-laguntza osoa justifikatutakoan.

Diru-laguntza justifikatzeko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dio Euskararen Erakunde Publikoak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari: batetik, emandako ebazpenak, eta bestetik, diruaren erabilera ziurtatzen duen txosten zehatza. Txosten horretan jasoko dira laguntza-modalitate bakoitzeko onuradunak bai eta egitasmo bakoitzaren betetze-maila eta balantze ekonomikoa ere.

Justifikazioa aurkezteko epea 2019ko ekainaren 30ean bukatuko da.

Esleitutako laguntzen likidazioa dela-eta diru-itzulketarik izanez gero, Euskararen Erakunde Publikoak Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari proportzionalki dagokion diru-kopurua itzuliko dio.

6. Engaiamenduak

Hitzarmena gauzatzera, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. Tituluan laguntza eta dirulaguntzetarako ezarritako araubidea bete beharko da, baita 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak ere eta, bereziki, beren lana burutzeko eskatzen duten informazio guztia emango zaie Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

7. Ez betetzeak

Hitzarmen honetako estipulazioak edo beste edozein xedapenetan nahitaez bete beharreko zatitako beste edozein manu orokor bete ezean, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio jasotako zenbatekoak eta horien legeko interesak, betiere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuak xedatutakoa bete ondoren eta bertan adierazten den bezala.

8. Auziak

Bestalde, hitzarmenaren aplikazioan sor daitezkeen auziak Euskal Autonomia Erkidegoko epaitegi eta auzitegi eskudunen jurisdikzioak eta Paueko Epaitegi Administrazioak ebatziko dituzte, kasuen arabera.

2018

Izenpea
Kultura eta
Hizkuntza Politika
Saila

Izenpea
Euskararen
Erakunde Publikoa

9. Eranskinaren iraunaldia

Eranskin hau sinatzen denetik 2018ko abenduaren 31 arte egongo da indarrean.

Hitzartutakoa hala ager dadin, eta esan bezala betetzeko, bi alderdiek hitzarmen hau izenpetzen dute frantsesez eta euskaraz, biak ere balio berekoak izanik.

Baionan, 2018ko apirilaren 25ean

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailburua Bingen ZUPIRIA GOROSTIDI Izenpea	Euskararen Erakunde Publikoaren Lehendakaria Beñat ARRABIT Izenpea
--	--

2018